

SAN JOAN SUA EGITEKO DEBEKUA

Aparteko beroaldia bizi izaten ari gara, eta, Eusko Jaurlaritzako Segurtasun Sailetik jakinarazi digutenaren arabera, hiru egunez jarraian alarma gorria ezartzea aurreikusita dago.

Hori dela eta, Ataungo Udal Gobernuak erabaki du **ekainaren 23an auzoetan piztu ohi diren suak bertan behera uztea, eta sua pizteko debekua ezartzea, bai kalean bai baserri inguruetan, alferrikako arriskuak saiheste aldera.**

Zentzuz jokatzea dagokigu, kaleko berotik babestea, ondo hidratatuta egotea eta pertsona zaurgarrienak zaintzea. Inguruan larrialdiren bat ikusten baduzue, **112 zenbakira deitu behar da.**

Ataunen, 2026ko ekainaren 22an.



M. Arriola

ATAUNGO UDALA